

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERANTEVILLAKO UDALA

Jendaurrean jartzea eta kobratzea Berantevillako industrialdeko ur horniduraren eta saneamenduaren tasa – 2020ko lehenengo lauhilekoa

I. JENDAURREAN JARTZEA

Berantevillako industrialdea edateko urez hornitzeko eta saneamendurako 2020ko ekitaldiko lehen lauhilekoko tasari dagozkion kontribuzio erroldak egin dira, eta abuztuaren 31ko Alkatezaren 114. dekretuaren bidez onetsi dira.

Errolda jendaurrean egongo da hamabost egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eragindako zergadunek errolda aztertu eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ahal izateko.

Kontribuzio erroldak jendaurrean jartzeak haien likidazioen jakinarazpen bateratua egitea du helburu, hala egin behar dela xedatzen baitute Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikulua 3. paragrafoan eta Kudeaketa, Dirubilketa eta Ikuskatzearen Udal Zerga Orokorrak 2.1. artikuluan.

Interesa dutenek espedientea udal bulegoetan aztertu ahal izango dute. COVID-19aren hedatzea saihesteko hartutako segurtasun neurriak direla eta, hitzordua eskatu beharko da aldeztatik, 945337059 telefonora deituta edo berantevilla.secretaria@ayto.araba.eus mezu elektronikora idatzita.

Erroldak eta haiei erantsitako likidazioak onesten dituen egintzaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkateari, hilabeteko epean, haiek jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

II. KOBRAZTEKO ALDIA

Borondatezko aldi ordaintzeko epea bi hilabetekoa izango da; hain zuzen ere, 2020ko urriaren 5etik 2020ko abenduaren 5era.

Borondatezko aldi ordaintzeko epea amaiturik, ordaindu ez diren kuotetarako, betearazteko aldia hasiko da berez eta besterik gabe. Horrek berekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien errekarguak eskatzea, Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorrak 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bai eta premiamendu prozeduraren kostuak ere, bidezko denean.

Banku erakundeetan helbideratutako ordainketak 2020ko urriaren 21ean igorriko dira.

Helbideratu gabeko ordainketetarako, zergadunei udalaren bulegoetan entregatuko zaie ordainagiria, dirua Kutxabankek bulegoan edo transferentzia bidez sar dezaten.

Zergadunei ohartarazten zaie komenigarria dela beren zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea. Halaber, nola banku helbideratzeetako altak edo aldaketak hala hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Berantevillako Udalean izapidetu beharko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Berantevilla, 2020ko abuztuaren 31

Alkatea

MARIO PEREA ANUNCIBAY